

# **HISTORIAKO GRADUA**

**2022-2023 ikasturtea**

**Gradu Amaierako Lana**

Emakume langileak hiri munduan: Bizkaia, XV.mendea

Autorea: Amaia Fernandez Maruri

Irakaslea: Ekaitz Etxeberria Gallastegi

**Laburpena:** Gradu Amaierako Lan honen helburua XV.mendeko Bizkaiko hiribilduetako emakume langileak modu intentsiboan aztertzea da. Horretarako, azterketa bibliografikoa eta Eusko Ikaskuntzak argitaratutako Behe Erdi Aroko Bizkaiko dokumentazio guztiak erabili dira, autore aipagarrienak Janire Castrillo Casado eta Javier Enríquez Fernández *et al.* izanik. Honez gain, datu base bat ere egin da, horrela esplizituki dokumentazioan agertzen diren emakumeen kopurua jakiteko; besteak beste emakume bakoitzaren aipua (kasu batzuetan izen propioekin), lanbidea, urtea, tokia adierazi dira. Hortaz ikerketa proiektu honek bi atal ditu: lehena marko bibliografikoa litzateke eta bigarrena, lan honen muina alegia, ikerketa bera, analisi kuantitatibo-estatistiko baten bidez. Horrenbestez, ikerketa lan honen hasieran historiografia tradizionalak alde batera utzi duen Erdi Aroko emakumeen inguruko ikerketan sakondu da, eta lanaren bihotzean emakumeen azterketa oso sakona egin da.

**Hitz gakoak:** *emakumea, Behe Erdi Aroa, XV.mendea, lanbideak, langileak, Bizkaia.*

**Abstract:** The purpose of this End-of-degree Project is to study the working women of the Fifteenth-century towns of Biscay in depth. To this end, the bibliographic study and all the medieval documentation of Biscay published by Eusko Ikaskuntza have been used, the most prominent authors being Janire Castrillo Casado and Javier Enríquez Fernández *et al.*. In addition, a database has been developed to ascertain the number of women who appear explicitly in the documentation, including the mention of each woman (in some cases with her own names), profession, year, place, for instance. So this research project is divided into two parts: the first would be the bibliographic framework, and the second, the core of this work, the research itself, through a quantitative statistical analysis. Thus, at the beginning of this research work, the study on women in the Middle Ages, which has been abandoned by traditional historiography, has been further elaborated, and a thorough study of women has been carried out at the heart of the work.

**Keywords:** *women, Late Medieval, 15th century, occupation, workers, Biscay.*

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
1.1. Historiografia orokorra	4
1.2. Historiografia espainiarra	5
<b>2. EMAKUMEAK ERDI AROAN</b>	<b>7</b>
<b>3. EMAKUME LANGILEA ERDI AROAN</b>	<b>8</b>
<b>4. BEHE ERDI AROKO EUSKAL HERRIKO EMAKUME LANGILEAK</b>	<b>11</b>
4.1. Ogiaren lanbideak	11
4.2. Saltzaile, merkatari eta dendariak	13
4.3. Artisauak	17
4.4. Asistentzia medikua eta espirituala	19
4.5. Denetariko neskak	21
4.6. Bestelako lanak	23
<b>5. EMAKUME LANGILEAK XV. MENDEAN: BILBO, LEKEITIO, URDUÑA ETA DURANGO</b>	<b>24</b>
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>31</b>
<b>7. ERANSKINAK</b>	<b>33</b>
<b>8. ITURRIAK</b>	<b>42</b>
8.1. Lehen mailako argitaratutako iturriak	42
8.2. Bibliografia	43
8.3. Hitzaldia	44

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: XV.mendeko emakumeen lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	24
2. Grafikoa: Ogiaren lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	26
3. Grafikoa: Saltzaile, merkatari eta dendarien lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	27
4. Grafikoa: Artisauen lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	28
5. Grafikoa: Asistentzia espiritualeko lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	28
6. Grafikoa: Denetariko nesken lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	29
7. Grafikoa: Bestelako lanbideak, kopuruak eta portzentaiak	30

## TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Lanbideak, kopurua eta lekua	25
2. Taula: Lanbideak multzoka	26
3. Taula: Datu basea	33

## 1. SARRERA

Erdi Aroko emakumeen historiografia 1970eko hamarkadan izan zuen abiapuntua eta geroztik emeki-emeki garatzen joan da. Momentu horretan, hain zuzen ere, kontakizun historikoen berregitea hasi zen. Historiografia tradizionala dela medio, emakumeak historia globaletik at zeuden objektuak besterik ez ziren; alabaina, hamarkada horretatik aurrera burututako lanen ondorioz, garai honetako emakumeen bisibilitatea ugartuz joan zen (Fuster, 2009: 248). Beraz, begi bistan dago gizarte misogino horretan emakumeak objektu, idolo eta etsai bezala ikusten zirela (Castrillo, 2023).

Gratu Amaierako Lan honen (GRAL) helburua Behe Erdi Aroko Bizkaiko hiribilduetako emakume langileen azterketa sakona egitea da, hots, XIV. eta XV.mendeak hartuz; alabaina, XIV.mendeko aipu bakarra aurkitu denez eta mende horretako informazio eskasa dela medio, lan hau soilik XV.mendean zentratuko da, maneiagarriagoa delako. Honela, GRALa 1400.urteetik 1500.urtera bitarteko tarte horretan oinarrituko da, azken urte hori barne hartuz. Mende honetako informazioa eta datuak, artikulua, liburu zein argitaratutako dokumentazioetatik atera dira, horren ondorioz, lan bibliografiko bat ez ezik, emakumeen ogibideen datu basea eta horren interpretazioa egitea posible izan da. Aitzitik, kronologiari dagokionez, aipatzekoa da XVI.mendean Euskal Herriko emakume langileen aipu eta informazioa oso aberatsa dela, eta horrek, lana aurrera eramateko zailtasunak sorrarazi ditu, ustezko informazio baliagarriak eta emakumeen erreferentziek ez zutelako balio. XVI.mendeko hasierako hamarkadak kontutan hartuko balira informazio gehiegi egongo lirateke; beraz, esan bezala, GRAL baten mugak errespetatzeko beharrezkoa izan da mendeen murrizketa egitea.

Lan hau burutzeko Eusko Ikaskuntzak argitaratutako udal artxiboetako erroldak erabiltzea ezinbestekoa izan da; era berean, gehienbat Janire Castrilloren liburu eta artikuluetan oinarritutako lana izateaz gain, berak eginiko emakumeen ogibideen sailkapen berdina jarraitu da. Halaber, lana aurrera ateratzeko beste hainbat autoreen artikulua zientifikoak ere erabili dira. Horrenbestez, lana bi bloke nagusitan banatzen da: lehen atalean, orokorrean, bibliografia erabiliz historiografia aztertu eta ogibide desberdinak azaldu dira; bigarren atalean, aitzitik, Bizkaiko lau hiribilduetako emakumeen (Bilbo, Lekeitio, Urduña eta Durango) datu base kuantitatibo-estatistiko bat egin da -zeina, argitaratutako dokumentazioetan, artikuluetan eta liburuan aurkitutako emakume langileen erreferentziaekin

eranskinen atalean ikusgai dagoen- eta hau oinarritzat hartuz (edo hemendik abiatuz) analisiak egin dira grafikoak eta taulak sortuz.

## 1.1. Historiografia orokorra

Hasteko, Erdi Aroko emakumeen gaiari buruzko berrikuspen historiografikoa egitea beharrezkoa da. Historiografia tradizionalaren metodologia diskurtso androzentriko batean murgiltzen zen, beraz, emakumeen historia ezagutarazteko, honen teoria ez zen baliogarria. Hori dela eta, 1970. urteko hamarkadan gai honi buruz interesaturik zeuden historialarien belaunaldia sortzen hasi zen, ondorio gisa, emakumeen historia disziplina sortu zuten. Lan hauei esker, historiografian baztertuta zein eskutatua zeuden emakumeak subjektu sozial modura bisibilizatzen hasi ziren (Fuster, 2009: 248-249). Erdi Aroko iturrietan emakumeen inguruko erreferentzia ugari daude, eta denboraren poderioz, emakumeen testigantzei buruzko argitalpenek gorakada ikaragarria izan dute. Izan ere, argitaletxe batzuk gai honetan espezializatu dira (Solé, 1993: 654).

Garai honetako emakumeen historiaren ikuspegiak eta metodologiak anitzak dira; Cristina Segurak adierazi bezala planteamendu metodologikoen teoria feministaren barneko joera ezberdinei erantzuten diete; eta gaur egungo teoria lau joeratan banatu daiteke: Berdintasun feminismoa<sup>1</sup>, Sexu Desberdintasunaren Pentsamendua<sup>2</sup>, Feminismo Marxista<sup>3</sup> eta Feminismo Lesbianoa<sup>4</sup>. Teoria hauek bat datoz emakumeak subjektu sozial eta politiko gisa defendatzean. Izan ere, Historia subjektu sozial maskulino batetik eraikia izan da, hortaz, orain arte Historia partzial bakarra egin da. Erdi Aroko gizarte patriarkalari dagokionez, gogoan izan behar dugu emakume zein gizonak, hau da bi subjektu, eta bien arteko harremanak, eta gizartean jarduteko aukerak baloratu behar direla (Segura, 2013: 35-41).

---

<sup>1</sup> Bi subjektuen berdintasun soziala zein politikoa defendatzen du (Segura, 2013: 35).

<sup>2</sup> Emakumeek eraikitako beraien historia egiten du, planteamendu patriarkalak erreferentziatzen hartu gabe Segura, 2013: 36).

<sup>3</sup> Emakumeen gizartean eta ekoizpenean duten parte-hartzea ikertzen du; emakumeek beraien etxeetan egindako lanen gainbalio ez-monetarizatuak sortzen dituztela, baina kapitala handitzen laguntzen dutela defendatzen du Segura, 2013: 37).

<sup>4</sup> Gizarte kapitalista eta patriarkalak soilik harreman heterosexuala forma zuzentzat hartzen du, ondorioz, familia monogamoa da patriarkatuaren aukera bakarra. Horrek lanaren banaketa sexuala dakartza, patriarkatuak definitutako arauen mende dagoen, eta, noski, gizonen mesedetan Segura, 2013: 38).

## 1.2. Historiografia espainiarra

Erdi Aroko Hispaniako emakumeen historian zentratuz, azken 30 urteetan gai honi buruzko historia egin da, eta Cristina Segurak hiru etapa bereizi ditu: 80.hamarkada, 90.hamarkada eta mende aldaketa. Azterketa hauei esker argi ikusi da Erdi Aroko Historiak ez zituela emakumeak subjektu historikotzat hartzen, baizik eta objektutzat; gainera, idatzietan jada ezagutzen ziren emakumeen bizitzako kanpoko gaiak deskribitzera mugatzen ziren. Era berean, ez zuen emakumeen iraganari buruzko ezagutza normalizatu, ondorioz, hauen ezagutza eta lanketa mugatua izan da ikertzaileentzako. Honetaz gain, Segurak arribismoaren arazoari garrantzia eman dio; hots, egungo unibertsitate-sistemak sortutako curriculuma egiteko premiak konpultsiboki argitaratzeko beharra sortzen du eta horren emaitza gisa dokumentuak iruzkintzea mugatzen da, berrikuntzarik ekartzen ez duena (Segura, 2013: 41).

Espainiako Emakumeen Historiaren garapena 1970eko hamarkadan gertatutako aldaketa politikoen testuinguruan kokatu behar da, momentu honetan hasi baitziren emakume taldeak sortzen. Garaiko emakumeen lehen idazkiak, ordea, hamarkada bat beranduago hasi ziren, María Ángeles Durán soziologa eta Cristina Segura Graño historialarien eskutik. Emakumeen historiari buruz interesa zuten eta ikertzen ari ziren emakumeak bildu ziren, eta, denborarekin, hamabost lan aurkeztu ziren, horietako bi Erdi Aroari buruzkoak izanik (Segura, 2013: 42). Ezinbestekoa da Cristina Segurak eginiko *Participación de la mujer en la repoblación de Andalucía (siglos XIII y XV) . Ejemplo de una metodología* lana aipatzea, emakumeak aztertzeke lehen saiaketerako bat izan baitzen. Lan honekin emakumeei buruzko azterketa historikoa egiteko metodologia berria plazaratzeaz gain, historian emakumeek benetan parte hartu zutenaren erakusle izan zen. Hain zuzen ere, 1981.urtean Madrilgo Unibertsitate Autonomoan *Primeras Jornadas de Investigación Interdisciplinaria* mintegian aurkezturikoa (Fuster, 2009: 252). Honi irmoki loturik, sexu desberdintasunaren pentsamendurako bidea hartu zuten Teresa M<sup>a</sup> Vinyoles i Vidal eta M<sup>a</sup> Milagros Rivera (Segura, 2013: 44). Lehena, garaiko emakumeen ikerketen aitzindarietako bat izan da, 1969.urtean emakumeen historiari buruzko azterlanetan hasi zena. 1982.urtean *Equip Broida* ikerketa taldea sortu zuen (Rodríguez, 2014: 167), zehazki, Espainian Erdi Aroko emakumeen egoerari buruz sortutako lehen ikerketa-taldea. Broida taldearen lana notario-protokoloak (dote eta testamentuak) aztertzean oinarritzen zen (Fuster, 2009: 264). Bigarrenak, Bartzelonako Unibertsitateko Erdi Aroko katedraduna, metodologia berria

proposatu zuen, hots, pentsamendu filosofiko berriarekin historia idazteko modu berri bat sortzea. Metodologia berri hori María-Milagros Riveraren eta DUODA taldeak antolatu zuten (Fuster, 2009: 261).

Urteak igaro ahala, Erdi Aroko gazteen saila hazten joan zen, hauen artean M<sup>a</sup> Teresa Lopez Beltran eta M<sup>a</sup> Isabel del Val aipagarriak izanik (Segura, 2013: 44). Maria Teresa Lopez Beltran historiagileak *Asociación de Estudios Históricos sobre la Mujer (AEHM)* sortu zuen (Fuster, 2009: 254) eta talde honetako partaideek (Mary Nash, Cristina Segura, Rosa Cid, Cristina Borderías, Gloria Franco, Pilar Pérez eta M<sup>o</sup> Isabel del Val) hispaniako testuinguruan ikerketa-ildo ahuleko gai baten ezagutza bultzatu zuten, alegia (Segura, 2013: 50). María Isabel del Val Valdivieso Hispaniako Erdi Aroko emakume historiko handien ikerketara bideratu izan da (erreginak eta goi nobleziako emakumeak), eta tradizionalki emandako ikuspegi androzentrikoa aldatzeko beharra planteatu zuen; horretarako eguneroko bizitzaren azterketa, pentsamoldeen historia eta familiaren historiaren azterketak gehituz (Fuster, 2009: 259-260).

Aipagarria da Georges Duby historiagile frantsesak 1984an argitaratutako *La condición de la mujer en la Edad Media solasaldia* (Rodríguez, 2014: 168), izan ere, emakumeen historiaren azterketan jarraitu beharreko metologiari buruzko ikuspegi pertsonala azaltzen zuen. Historialari frantsesaren lanari esker historiografia frantsesak Espainian eragin handia izan zuen (Fuster, 2009: 275). Honen harira, oro har Hispaniar eremuko Behe Erdi Aroko emakumeei buruzko lan aipagarria Cristina Segura Graíño eta Ángela Muñoz Fernándezek egin zuten, 1988an *El trabajo de las mujeres en la Edad Media hispana* argitaratuz (Rodríguez, 2014: 168).

Zientzi Historikoen Nazioarteko 17.kongresua Erdi Aroko Emakumeen Historiarako unerik garrantzitsuena izan zen. 1990.urteko biltzar horretan, garaiko emakumeen historiaren normalizazioaren zantzua eman zen, nolana ere, emakumeak subjektu historiko gisa ez ziren normalizatu; bakarrik talde txikiak ohartu ziren aro honetako emakumeen papera erabakigarria izan zela gizarte kristau, islamiar zein judua eraikitzerako orduan (Segura, 2013:47-48).

Behe Erdi Aroko historiografiari dagokionez, XIII. eta XV. mendeetako bilakaera hainbat ikuspuntutatik aztertua izan da, horrela emakumeen egoerara gehiago hurbiltzea ahalbidetuz. Emakumeen lanari dagokionez, hau ikertzeko momentuan ezinbestekoa izan da hiri- zein landa-eremuean kokatzea, leku hauetan lehen mailako papera jokatu baitzuten. Maria Isabel del Val-en ahotan 2013.urtetik gaur egunerarte, alor honetan, aldaketa batzuk egon dira; hots, emakumeen lan-sektore guztien gainetik merkataritzako ekarpenak gehiago hasi dira kontuan hartzen. Argituaratutako ikerketetan argi adierazi dute emakumeak txikizkako mertararitzan eta maila handiagoko negozio zein konpainietan parte hartzen zutela. Honetaz gain, kontzejuetan zer nolako parte hartzea zuten eta egunerokotasunean eragiten zioten arauak zein hiriguneen ekarpenak ere aztertu dira (Del Val, 2021: 38-46).

Egun Erdi Aroko ikerketa talde asko sortu dira, oinarritzat ikerketa sexu-desberdintasunaren printzipioa izanik. Ikerlari talde hauen argitalpenek Erdi Aroaren amaierako emakumeen bizitza, pentsamendu, jarduerak, harremanak eta herri mailan duten bizitzari buruzko datu garrantzitsuak eman dute (Segura, 2013: 52-53).

## **2. EMAKUMEAK ERDI AROAN**

Europa Feudalean kultura patriarkala gailentzen zen, horren ondorioz, bai kultura-arloan, bai gizarte-aldaketa guztietan, sexu femeninoa gizonen nagusitasunaren mende egon zen; hots, emakumeen portaera oro, kontrol eta arau sozialen mende zeuden. Emakumeen sexuari buruzko arau espezifikoak indarrean egon ziren, oro har, eremu guztietan (familiarren barruan zein kanpoan, eta eremu pribatu zein publikoan) emakumeen eskubideak murrizten zituzten legeak ziren (Opitz, 1992: 324). Botere-espazioen eta emakumeen arteko harremanari dagokionez, argi adierazita agertzen da dokumentuetan emakume izateagatik kontzejuan parte hartzeko aukerarik ez zutela; ahalmen hori soilik gizonezkoek zuten (Castrillo, 2014: 505-506).

Erdi Aroko emakumeak baliogabetzea eguneroko ogia zen, ez zuten baimenik epaiketa batera bakarrik joateko, gizon bat joan behar zen beraien errepresentatzaile edo mentore gisa. Beraz, honen harira, emakume ezkonduen kasuan, beraien “tutoreak” senarrak izaten ziren; eta ezkongabeen kasuan, aita. Emakume librean kasuan, herriko eskubide guztietatik



baztertuta zeuden. Orokorrean, emakumeak etxe barruan zein kanpoan zuen egoera senarrarekin zuen harremanaren araberaoa zen (Opitz, 1992: 324). Honez gain, emakumeak “imbecillitas sexus” zirenaren ideia zegoen, Erdi Aroko gizarteak andrazkoek gizonekin alderatuta gaitasun txikiagoa zutela pentsatzea sorrarazten zuen (Castrillo, 2021: 296).

Emakume ezkonduak senarren patroitzaren mende zeuden, alabaina, aro honen amaieran emakumeen rola indartzen hasi zen, horrela haien egoera zibilak (posizio zibilean eta jardunketa eremuan) garrantzia hartu zuen. Situazio honetatik at merkataritzan aritzen ziren emakumeak zeuden, hauek, egin-eginean, ez baitzeuden gizonetzko tutoretza baten mende (Opitz, 1992: 326).

Amatasuna, ezkontza eta familia bezala, eguneroko bizitzarako eta Erdi Aroko emakumearentzako gizartean zuen kokapenerako faktore garrantzitsua izan zen, seme-alabak izatea eta hauek heztearen zeregin nagusia baitzen (Opitz, 1992: 343). Bestalde, lan munduan ere partaide aktiboak izan ziren; txikitatik lanbide bat ikastea hezkuntzaren parte izan zen, baina alde handiak egon ziren sexuaren arabera (Rodríguez, 2014: 166). Nekazaritzaren sektorea zen gehien enplegatzen zuten lana eta hau urtaroko jarduna izaten zen. Oro har eta salbuespenak salbuespen, emakume askok hirietako merkataritzan aritzen ziren, eurek egindako produktuak edo inportatuako produktuak salduz (Opitz, 1992: 354-359). Emakume guztiak haurtzaroen ikasi egin behar zuten: nobleziako emakumeek gobernatzen jakin behar zuten moduan, behe estamentuetako emakumeek etxeko lan guztiak ezagutu behar zituzten, eta gainera, familiaren ekonomiari laguntzeko, bestelako ofizioetaz jabetu behar ziren. Ofizio hauek familiaren tailerretan ikasitako lanbideak izaten ziren, alegia; irakasle bezala gehienetan senarrak izanik (Rodríguez, 2014: 166).

### **3. EMAKUME LANGILEA ERDI AROAN**

Lanaren gizarte-antolaketari buruzko azterlan ugari daude eta agerian utzi dute emakumeek lan-munduan ez zutela parte hartu gizonen baldintza berdinetan. Behe Erdi Aroan garapen ekonomikoak baldintzatzen zuen emakumeen lan-indarra sektore batetik bestera mugitzea; beharrezkoa bazen lanbide bat burutzerako momentuan, soilik orduan uzten zien integratzen, eta bestela debekatuta zuten, gizonentzat suposatzen zuten lehiagatik. Gauzak

horrela izanik, emakumeen lana prekariedade eta subsidiotasun egoeran garatu zen, beraz, gizaratean ez ziren behar bezala aintzat hartu (Castrillo 2020: 243).

Nahiz eta emakumeen papera bigarren maila batean kokatu, orain arte pentsatu denaren kontra, badakigu etxean eta etxetik kanpo ere lan egiten zutela, eta horren baitan, lanak ordainduak edo dohakoak izan ahal zirela. Halaber, garai honetako emakumeen lan produktiboa eta erreproduktiboa ez dago garbi bereizita, eta horrek, hauen lana itxuragabetzea eta ikusezin bihurtzea sorrarazten du. Dena den, Erdi Aroko emakumeen kasuan bi errealitate desberdinak dira: etxeko eremuan familiaren beharrak asetu behar zuten errealitatea, eta etxeko gune horretan familia nukleoaren zerbitzura lan egiten duen errealitatea, azken honetan diru-sarrerarik lortu gabe (Del Val, 2008: 63-74).

Gizarte-egoera apaleko jendea autokontsumorako oinarritzko ondasunak lortzen ahalegintzen zen, eta, ondoren, beren lan indarra erabiltzen zuten diru-sarrerak maximizatzeko. Bestalde, goi mailako emakumeek ere lanbide askotan parte hartu zuten, baina kasu honetan kudeaketa finantzaketan ekonomikoki lagunduz. Hiriguneetan aukera handia zegoen diru sarrerak dibertsifikatzeko; izan ere, artisautza eta merkataritza aberatsa agertu zen, horren harira, lanbide ugari sortu ziren, eta horietako asko kofradietan antolatu ziren Behe Erdi Aroan. Zentzu horretan, esan bezala, emakumeen lanbide ugari aurkitzen dira, batzuk modu autonomoan egindakoak eta ia guztiak etxearen oinarritzko hornidurarekin edo etxeko zerbitzuarekin lotuta zeudenak; ogibide hauek beste emakume batek (ama, amona, arreba edo auzoko neskek) erakutsitakoak izaten ziren (Castrillo 2020: 241-242). Hiriko artisau sektoreetako langileak izateko, kualifikazioa lortu behar zuten eta prestakuntza senarraren edo gurasoengatik jasotzen zuten, horrela alargunduz gero negozioaren martxa ziurtatu zezaketen. Gizarte sektore behartsunen kasuan, emakumeen lana ez zen kualifikatua izaten, eta familiaren etxetik kanpo eginiko lana zen, normalean jornalari moduan kontratatuz (Del Val, 1999: 1585-1586). Halaber, badakigu garaiko emakumeek negozioen funtzionamenduan eragina zuten gaiak kudeatzen zituztela, familia tailerretan laguntzaile premiazkoak izan zirela eta ezkontzaz kanpoko profesioetan beraien esperientziak eta gaitasunak garatu zituztela (López, 2010: 53).

Emakumeen ogibideetan zentratuz, parte-hartze ohikoena etxeko zerbitzuan izaten zen; lan hori egiten zuen emakumea familiako kidea bazen, printzipioz betebeharrak horiek ez

ziren ordainduak izaten, beraz, ez zuten errekonozimendu sozialik jasotzen, aldiz, familia kanpoko pertsona baten ogibide baten, ordaindutako lana bihurtzen zen (Rodríguez, 2014: 187). Orobat, etxeko espazio horretan emakumeen lana hierarkizatua zegoen eta banaketa sexualagatik emakumeei funtzio erreproduktiboa atxikitu zien. Gauzak horrela izanik, hauen ardurapean haurren hazkuntza, etxeko gaixoen arreta, eguneroko hornidura, janariaren prestaketa, garbiketa eta abar beraien ardurapean geratu ziren. Bestalde, inudetza ere emakumeen lan tipikoa zen, eta normalean klase sozial erosoetan ematen zen (López, 2010: 43-44). Inude izatea ere beste lan ohikoa zen eta hauek emakume helduak, kolore txurikoak, lodiak, bular zabal zein sendodunak eta osasun ona zutenak izan behar ziren (Rodríguez, 2014: 189). Etxe zerbitzuko beste bi lanbide *moza*<sup>5</sup> eta neskameena ziren, eta, lanaldi osoko etxeko lanak egiteko kontratatzen ziren, eta kontratua amaitzean jasotzen zuten lansaria. Azkenik, giltzariak edo giltza-andreak zeuden; zerbitzatzen zuten familiaren diru eta sekretuak zaintzen zituzten emakume helduak ziren (Rodríguez, 2014: 187-188).

Aipaturiko ardura eta lanez gain, okintza izan zen partaidetza handiena izan zuen sektorea; ogia oratu, labetu eta saltzeko lanak egiten zituzten. Oinarrizko elikagaia zen, horren ondorioz, okinek (gizon zein emakume) agintarien eskutik kontrol zorrotza zuten, gainera, lizentzia behar-beharrezkoa zen (Rodríguez, 2014: 178-179). Etxe arruntetan, normalean ez zen laberik egoten, hori dela medio, etxekoandreak labe publikoetara, kontzejuko labeetara eta labe partikularretara joaten ziren. Hortaz, argi dago labea guztiz feminiatutako gunea zela (López, 2010: 45-46). Jarraituz, belaunaldiz belaunaldi transmititutako beste lanak irutea eta jostea izan ziren; ehungintzarekin lotutako lanbideak kontratatutako ikaskuntza izaten ziren, hau da, maistra baten etxean neskatoek jostunen lanbidea ikasten zuten, bestelako lanetan laguntzearen truke. Eraikuntzaren sektorean ere lan egin zuten; egia esan, ez zuten lan espezializatua egiten, normaleak materialen garraioan aritzen ziren. Honetaz gain, arlo artistikoan ere aritu ziren emakume batzuk (Rodríguez, 2014: 179-182).

Behe Erdi Aroan medikuntzarako praktikak eta heriotzarekin lotutako lanbideak ugarituz joan ziren, erakundeek medikuntza arautu eta antolatu zuten; horrela, emakumeak mediku eta zikirurgialari lanetatik aldendu eta ginekologiaren eta obstetriziaren esparrura mugatu zituzten. Emaginen lan eremuak oso zabalak izan ziren: erditzeetan parte hartzea,

---

<sup>5</sup> *Moza* eta neskameak lanbide bera burutzen zuten, alabaina, lehenak maila baxuagoko neskameak bezala ulertu daiteke. Hemendik aurrera *mozei* buruz hitz egin behar denean hitz horrekin baliatuko gara.

bortxatuak izan ziren neskek aztertzea, kasu judizialean parte hartzea, genitaleetako arazoak ikertzea eta abar. Heriotzarekin lotutako lanbideei dagokionez, “defunteras” eta “corredoras de entierro”-en presentzia agertu da dokumentazioan, hauek hildakoen senideen eta heriotzarako produktuak zein zerbitzuak eskeintzen zituztenak izan ziren. Azkenik, testamendu-egile edo albacea gisa emakume gutxi aritu ziren, eta beraien lana hileta eta elizkuzunak ordantzeko beharrezkoa zen gauza oro kudeatu behar zuten, beti hilzorian zegoen pertsonaren nahiak betez. Pentsatzen denaren kontra, emakumeek merkataritzaren esparru guztietan partaidetza esanguratsua izan zuten. Hiriko merkataritzaz gain, merkatarari handiak ere izan ziren, transakzio garrantzitsuak eginez. (Rodríguez, 2014: 183-186).

#### **4. BEHE ERDI AROKO EUSKAL HERRIKO EMAKUME LANGILEAK**

Aurreko atalean aipatutakoarekin jarraituz, Behe Erdi Aroko Euskal Herriko emakumeek ere hainbat ogibidetan lan egiten zuten. Atal hau Janire Castrillo eta Aida Castrilloren “Euskal emakumeen ogibideak Behe Erdi Aroan” artikuluan oinarrituko da, beraz, beraiek eginiko sailkapenari jarraiki eta garaiko dokumentazioarekin baliatuz, garaiko Euskal Herriko emakumeen lanbideak azalduko dira, zehazki Bizkaiko hiribilduetan zentratuz.

##### 4.1. Ogiaren lanbideak

Okintzarekin hasiz, Janire eta Aida Castrillok aipatu bezala (2020: 36), ogiaren ekoizpena soilik emakumeen eginkizuna zen, beraz, labea espazio femeninotzat ulertzen zen. Dokumentaziora joz gero, ikusi dezakegu, Bizkaiko hiribilduetan emakume askok okin bezala jarduten zutela; Bilboko dokumentazioan “Okinen titulua” aurkitu dezakegu (Enríquez *et al.*, 1996a: 97). Okinek ogia lortzeko prozesu bat jarraitzen zuten; hots, irina erosi eta oratu, oreka labera eraman, eta, behin azken produktua lortuta, saldu egiten zuten (Castrillo eta Castrillo, 2020: 36). Beraz, kontzejuak ezarritako pisu, neurri eta prezioen kontrol zorrotza pasatu ondoren, okinek ogia salgai jarri ahal zuten. Ogiaren prezioa behin ezarrita, ezinezkoa zen beste prezio batean saltzea (Ayuso, 2009: 123-124). Gainera, udal-pisua oinarrizko elikadura-premiei lotuta zegoen eta auzotar guztiak behartuta zeuden ehotu baino lehen garia pisatzera, hortaz, espazio honetan jende asko biltzen zen. Zenbait hiribildutan, emakume alargun zein ezkonduak, hornidura hori errentan ematen zutela egiaztatu da; Portugaleteko

kasuan, Sancha de Pandro andreak 1487an errentan utzi zion beste emakume bati (Castrillo, 2020: 281-282).

Bilboko hiribilduan kontzejuak ogiaren salmetan azoka-plazara mugatuta egon behar zela adierazi zuen (Castrillo, 2020: 277-278), eta Bilboko okinek plazatik kanpo ogia salduz gero isuna ordaindu behar izaten zuten; adibide hori dokumentazioan aurkitu dezkaegu: “Suso en la casa y camara del conçejo de la noble villa de Bilbao, a tres de septiembre de 1492 [...] los dichos señores del dicho/ conçejo mandaron que ningunas panaderas vezinas de la dicha villa/ que no venden ningún pan en sus casas saluo en la/ Plaça, so pena de docientos maravedis” (Enríquez *et al.*, 1996: 97). Gainera, gariaren eskari handi eta honen erosketa ugariagatik, udaleko kideek okinengan agindua jarri zuten: astean gehienez hiru anega gari erostea eta soilik astelehen, asteazken eta ostiraletan erosi zezaketen; kontrara, kasu honetan ere, zigortuak izaten ziren: “ordenaron y mandaron los sobre dichos señores/ que ninguna panadera ni mesonero no compre en el mercado/ en la semana más de tres fanegas de trigo, y los compren/ lunes y miércoles y viernes e no en otro dia, sino pena/ de docientos maravedis a cada uno por cada vez” (Enríquez *et al.*, 1996a: 109).

Janire Castrillok azpimarratu bezala (2020: 277-278) Lekeition 1421.urtean honakoa ikusi dezakegu: “la tienda de pannes que es de los fijos de Fernand Martines de Ermendurua”; hau da, Bilborekin konparatuz, herri honetan okindegiak denda partikularretan egoten ziren.

Plentziako dokumentazioa erreparatuz, 1455.urtean ikusi dezakegu herriko alkateak agindu bat legeztatu zuela: “Yten, ordenaron y mandaron y pusieron por ley que ningún vecino ni vecina de la dicha villa nin foráneas panaderas que hacen y venden pan cocido por menudo, no sean osados de lo vender sin que hagan la mitad a un maravedí e la otra mitad a dos maravedís, sin liçençia del alcalde y fieles, so pena de veinte maravedis por cada vez” (Enríquez, 1988: 11); hots, alkatearen baimenik gabe hiribilduko bizilagun zein okinak ezin ziren ausartu ogiari prezioa jartzen, hau gertatuz gero isuna ordaindu beharko zuten.

Okigintza bezala, labezainen lana ere kontzejuak arautzen zuen. Labezainak labe handiak kudeatzen zitzuten emakumeak ziren, eta bertan ogia egosten zuten (Castrillo eta Castrillo, 2020: 41). Langile hauek tailer propioa eduki zezaketen eta bertan beraien neskameek lan egin ahal zuten. Labezainek Bilbon adibidez bost neskame izan zezaketen

labetik ogia sartu eta ateratzeko (Ayuso, 2009: 123-124). Honez gain, 1488ko Bilboko ordenantza batean adierazten den bezala, egusenti edo ilunabarrean garraiatutako egurrez hornitzen zuten labea: “que ningunas horneras ni otras personas algunas no trayan argoma ni lenna por cabeça alguna para los hornos [...] salbo de entrando sobre ynbierno e berano ho vna hora antes o despues del sol entrado” (Castrillo eta Castrillo, 2020: 42).

1488.urteko Biboko ordenantzetan labezaintzako agindua jarri zuten, labezain bakar bat ere ezin zen ausartu finkatuta zegoen soldata baino kantitate handiagoa eramaten, eta, era berean, ezin zuten ezarritakoa baino gehiago eman, bestela isuna jaso zezaketen: “Otros, mandaron que ningunas horneras no sean osadas de/ llevar más salario ni otra cosa de lo que está asentado y ordenado de primero con las horneras/ con la pena que sobre ello está puesto; y asi mismo,/ ningunas ni algunas no sean hozadas de les dar mas/ de lo que esta ordenado, so la dicha pena” (Enríquez *et al.*, 1996a: 130)

Errotarien lana okintzarekin lotutako beste lanbide bat da, emakume eta gizonen partekatu zutena, alegia. Normalean udalei, eliz erakundeei eta familia aberatsei alokatutako errotetan aritzen ziren (Castrillo eta Castrillo, 2020: 42). Errota eta pisua emakumeen bilguneak ziren, izan ere, errotara alea eramaten zuten, eta ehotu ondoren irinarekin ogia egiten zuten; gainera, kontuan izan behar da garia ehotu aurretik eta ondoren beti pisura joan behar zirela (Del Val, 1999: 1593). XV.mende amaierako emakume errotari baten adibidea Maria Perez de Vitayo durangarraren da, honek errota independiente batean lan egiten baitzuen (Castrillo, 2020: 280).

Beste profesio bat “jasotzaile”-ena da, zakuak garraiatzean zetzan eta ekonomia garatua zuten hiriburuetan, Bilbon kasu, buru gainean, animalia edo txalupen bidez burutzen zituzten garraioak: “ e los llevaban en bestias e va/teles”(Enríquez *et al.*, 1996a: 76).

#### 4.2. Saltzaile, merkatari eta dendariak

Emakumeek hiri eremuan garatu zuten lanbiderik garrantzitsuena errekarariena izan zen (Ayuso, 2009: 128). Elikagaien banaketaren zati handia, beraz, emakume errekararien esku egon zen, premiazko produktuen txikikazko saltzaileak ziren, alegia. Produktu

aipagarrienak kandelak, olioak, oihalak, gantzak, arrautzak, fruta, barazkiak, haragia edo arraina izaten ziren. Janari hornidura bermatzeko funtsezko figurak izanik, udalaren kontrol zorrotzaren menpe zeuden. Salmenta sistemaren antolaketa hiribilduen eskuetan zegoen. Durangoko kasuan, udalak errekaritari merkantzia prezio tasatuan hornitzen zion eta, ondoren, saltzaileen bitartez igortzen zituen, irabazien zati bat berenganatuz. Durangoko kontzejuan, 1498.urtean, errekaritari batek Juan de Leoneri kinkileriak<sup>6</sup> alokatu zizkion: “yten, que los dichos nuestros fieles den a los dichos bufones e bufonensas el cabdal por sus juramentos, segund fasta aqui se ha usado e acostumbrado, de las tales viandas e allende ayan de dar a nuestro arrendador los que asy vendieren” (Castrillo, 2020: 283).

Errekardariak ez bezala herritarrek birsaltzea debekatuta zuten. Errekardariak hiria hornitzeko konpromisoa izanik, produktu guztiak saltzeko eskuragai izan behar zuten, bestela zigortuak izaten ziren. Honez gain, errekaritariak bestelako langileen aurrean gailentzen ziren, hots, errekaritariak arraina saltzen bazuten, arrain saltzaileek ez zuten zilegitasunik produktu hori saltzeko. Labur esanda, errekaritariak nahi adina produktu eskatu ahal zien arrain saltzaile zein merkatariei eta hauek saltzera behartuak zeuden. Esandakoaren harira, eta Portugaleteko kasua adibidetzat hartuz, errekaritarien lanbidea oso babestuta zegoen, hortaz, sarritar txikizkako produktuak saltzen zutenei zigor gogorrak ezartzen zitzairen (Ayuso, 2009: 128-129).

Errekardari batzuk produktu jakin batzuen salmentan oinarritu ziren, jarraian espezializazio hauek azalduko dira (Castrillo eta Castrillo, 2020: 44).

Olio-saltzaileekin hasiz, eta arestian esandakoarekin irmoki loturik, 1492.urtean, Bilbon hiru merkatariri agindu zioten mulateroek inportatutako oliorik ez hartzeko, izan ere, merkatarien aurretik errekaritariak aukeratu behar zuten (Castrillo, 2020: 285). Orobat, Plentziako bilduma dokumentalean langile hauen aipamena aurkitu dezakegu, hala nola, produktu horren salmentan espazializatutako errekaritariak kalitate oneko produktua saltzera behartuak zeuden, Bilboko bezain onak, eta, ordenantza hori obligaziozko eginbeharra zen, bestela zigorra jartzen zitzairen: “Yten, ordenaron y pusieron por ley e hordenança que qualquier regatera que quisiere usar de ofiçio de la regateria en esta dicha billa, de vender azeyte e candelas, sean tenidos de los vender tal e tan bueno como en la villa de Bilbao (...) ir

---

<sup>6</sup> Kinkileriak jangaiak eta askotariko objektuak saltzen zirenak ziren (Castrillo, 2020: 283).

contra esta dicha hordenança con pena de sesenta maravedis por cada vez” (Enríquez, 1988: 114).

Kostaldeko herrietan nabarmendu zen lanbidea arrain- eta sardina-saltzaileena izan zen. Janire Castrillok azpimarratu bezala (2020: 267) emakumeen lan hau soilik gatazka egoeretan nabarmentzen zen, gainera, kofradien estatutuetan arrantzarekin lotura duten emakumeen aipamen gutxi agertzen dira.

1497.urteko ordenantza batean agertzen den modura, erre kardari batzuk Zamudioko Atari osoa okupatzen zuten sardinak saltzeko; orduan, “y dia en adelante non este ninguna re/gatera nin otra presona alguna a vender sardina fuera de sus/ puertas en el Portal, sino pena de çient maravedis a cada vno por/ cada bes y que pesquisa aya logar; e si algunos quisieren/ tener, tengan dentro, en sus casas e puertas”. Beraz, momentu horretatik aurrera, ezin zuten Zamudioko atarian sardinarik saldu, zigortuak izan nahi ez bazuten (Enríquez *et al.*, 1996a: 130).

Halaber, 1496.urtean arrain zein sardinen gaineko ordenantza jarri zuten Bilboko hiribilduan: “ordenaron e mandaron que cualquiera presonas que a esta/ villa trajieren pescado e sardina (...) non sean osados/ de vender en mas presçio de lo que los fieles los afo/raren e les mandaren dar (...) qualquier regatera/ desta villa que vendiere sin los aforar por fieles/ o de mas de lo que fuere aforado,” hau da, erre kardariak ezin zuten arrainaren prezioa igo, erabakitako prezioa baino garestiago saltzen bazuten 200 maravediko isuna ordaindu beharko zuten (Enríquez *et al.*, 1996a: 117).

1488an, kontzejuak adierazi zuen arrain- eta sardina-saltzaileek arrain asko erosten zutela birsaltzeko eta kantitate handia ezkutatuan izaten zutela gehiago ez ordaintzeko; horrela, “que ninguna regatera no pueda conprar/ ni bender sardina ninguna sin que ma/nifieste al rentero” agindu zuten (Enríquez *et al.*, 1996a: 56).

Erre kardarien atalari amaiera bat emateko, aipagarria da 1487.urteko ordenantza batean, Kontzejuko jaunek esan zuten erre kardariak arraina, sardinak, olio eta kandelak, sarritan, benetan merezi duen prezioa baino garestiagoan saltzen zutela, eta gainera, pisu zein kantitate txikiagoetan: “ordenaron e mandaron los señores conçejo e ofiçiales/ que por quanto



las regateras que venden pescado çeçial/ y sardina y congrio y azeite e candelas por menudo, con poco temor de Dios e gran cargo de sus/ conçeñcias, lo venden malo e simple e mas caro/ que su justo preçio o menor en cantidad o en peso/ o en medida” (Enríquez *et al.*, 1996: 50).

Bestalde, ostatuak Behe Erdi Aroan landa- eta hiri-inguruan aurkitzen ziren txokoak ziren, normalean familia xumeek zuzendutakoak. Oinarrizko elikagaiak saltzeaz gain (ogia, haragia, sagardoa eta ardoa) ostatua eskeintzen zuten (Castrillo, 2020: 297-298). Era berean, tabernariak salgaien prezioarekin arreta handia izan behar zuten; hau da, Bilboko ordenantza erreparatzen bada, ikusi daiteke produktu bakoitzak prezio bakar bat izan behar zuela: “Hordeno e mando conçejo que ningunos ni algunos vezinos ni moradores/ ni foranos no sean hosados de bender ni bendan/ vyno en esta villa en vna de (sic) taberna mas de/ a un preçio [...] que qualquier tabernero o taber/nera que feziere mostrar por la billa el vyno para/ bende (sic) que dellos diere y bendiere de otro vyno/ e non de lo que que (sic) aya la mesma pena por cada vna bez/ cada vna presona; e pesquisa aya logar” (Enríquez *et al.*, 1996a: 53).

Halaber, Cristina Ayusok aipatu bezala (2009: 130), tabernetan legezko jarduerak ez egitea ohikoa zen, jokia eta prostituzioa eguneroko ekintzak izanik. Alkohol eta jokoengatik liskar asko sortzen zirenez, autoritateak kontrola emakume trabernariengan jarri zuen, ordena publikoa mantentzeko funtsezko indibiduoak ziren eta establezimenduan gertatzen zenaren erantzule bakarrak ziren.

Jarraituz, ehunen merkataritzan espezializatu ziren langileak lentzeria-saltzaileak eta artekariak izan ziren (Castrillo eta Castrillo, 2020: 45). Lentzeria-saltzaileak egoera ekonomiko lasaia zuten, ondare nahikotxo izaten zuten eta askotan merkatariei dirua maileguan uzten zioten. Esandakoaren adibidetzat daukagu Maria Saez de Villela lentzeria-saltzailearen kasua; bilbotar honek 1498.urtean Pedro de Aretxaga merkatariaaren alargunari, Marina de Isasi-ri, 20 dukat-en zorra erreklamatzeko zion. Artekariei dagokienez, hiriko oihal-ekoizleen eta kanpotarren produktuen salerosketaren bitartekotza burutzen zuten (Castrillo, 2020: 293), hau da, merkataritzako bitartekariak ziren eta kontzejuari fidantza ordaindu behar zioten lanbidean jarduteko eta kobratzen zutenaren berri emateko (Ayuso, 2009: 127). Gizon artekariak mulateroei burdina edo arraina saltzen zioten bitartean, emakume artekariak beraien ekintza ehun eta oihaletara bideratu zuten. Honez gain, salgaiak

lortu, erosle atzerritarrei etxeak bilatu eta alokatu, eta saltzaileen arteko tratuak ixten zituzten (Castrillo, 2020: 293-294).

Distantzia handiko merkataritza lanetan ere jardun zuten emakumeek, dena den, ezinezkoa da baieztatzea bidaia luzeak egin zituztenik, ez baitago dokumentazioan horren daturik. Aitzitik, merkataritza-salerosketa garrantzitsuak nola egin zituzten eta itsasontzien zein armaduraren finantzaketak egin zutenaren datuak eta adibideak aurkitzen dira, nahiz eta ez izan XV.mendekoak (Castrillo, 2020: 272). Nolanahi ere, aho betez esan dezakegu merkataritza luzean emakumeek lanean jardun zutela.

### 4.3. Artisauak

Emakumeen beste lanbide batzuk artisautzaren barruan kokatzen ziren; Erdi Aroan gehien lantzen ziren zuntzak artilea, kalamua eta lihoa ziren, prozesu osoa (erein, hazi, sorotik buldu, eraldatu eta ehundu) emakumeen esku egoten zen eta ofizio ordaindua zen. Hasteko iruleen kasua daukagu, jardueratzat lehengaia hari bihurtzea izanik (Castrillo eta Castrillo, 2020: 46). Janire Castrillok aipatu bezala, 1496.urteko Durangoko oihal-kofradiaren estatutuetan iruleen aipamena agertzen da: “Otrosy, dijeron que por quanto las ylanderas con codicia de ylar mucho ylaban mal, por donde salian los paños malos e hera cauda de infamar oficiales, que si alguna ylandera mala ylase lo que le traxieren, que ninguno non le de otra vez a ylar fasta que lo obiere de uso que asy alo mal al dueño, so la dicha pena de los cient maravedis”. Paragrafo honetan argi ikusi daiteke iruleek diru-goseagatik asko iruteaz gain gaizki iruten zuten, emaitza giza txarto egindako oihalak ateratzen ziren. Bestalde, iruleek ez zituzten tailerrik, etxeetan zuten beraien lan eremua, gainera, ez ziren korporazioko kide gisa aitortuak eta azpikontrata moduan jarduten zuten (Castrillo, 2020: 266).

Ehungintzako produkzioa, hein handi batean, emakumeen esku egon zen eta ehun-gaiak herri mailan merkaturatzen zituzten (Castrillo, 2020: 292), lihoa egiten zuten etxeko arropa eta jantziak egiteko (Ayuso, 2009: 124). Jarduera honek lentzeria-saltazileekin eta artekariekin oso lotuta zegoen; Lentzeria-saltzaileek, hain zuzen ere, lihozko ehunak saltzen baitzituzten (Castrillo, 2020: 292-293). Ehule baten adibidea Libro de Autos

Judiciales dokumentazioan aurkitu dezakegu; 1457.urtean Teresa Iturriagari “quebrandole/ la casa, le furtaron e llevaron della treinta e vna varas/ de lienco”, hots, testigantza honekin oso agerikoa da emakume hau ehulea zela, izan ere, ohilak lapurtu zizkioten (Enríquez *et al.*, 1995: 103). Ehuleekin batera, jostunak arropak ekoizteko prozesua amaitzeaz arduratzen ziren (Ayuso, 2009: 125). Jostunei dagokienez, XV.mendeko dokumentazioan soilik emakumeen aipamenak agertzen dira; lanbide hau soilik emakumeek etxean burutzen zuten, errealitate-prekarioa zela medio (Castrillo eta Castrillo, 2020: 46).

Ehungintzarekin lotutako beste ogibide bat lumalariena da, hots, emakume hauek lihozko ehunekin kuxinak eta koltxak egiten zituzten, eta lumekin betetzen zituzten; Bilboko ordenantzan ikusi daiteke 1499.urtean lumalarien soldataren ordenantza idatzi zutela (Enríquez *et al.*, 1996a: 141).

Kandelagintza emakume artisauen beste sektore bat izan zen, oinarrizko produktuak ekoizten zituzten argiztapenerako eta hildakoen ofrendak egiteko (Castrillo eta Castrillo, 2020: 47). 1496.urteko Bilboko ordenantza batean hiribildu horretan kandela guztiak forma berdina izan behar zutela ikusi dezakegu: “ vecinos de dicha villa recibian gran daño y perjuicio en que las regateras y candeleras desta villa/ hazian las candelas mucho mas pequeñas de lo que debían/ faser (...) ordenaron e mandaron que de oy dia en a/delante todas las candeleras que son e seran/ en la dicha villa e en su juridiçion, en el dar e faser/ de las candelas goarden la forma” (Enríquez *et al.*, 1996a: 112). Dokumentazio berdinarekin jarraituz (1996a: 112), kandelak lantzeko prozesua deskribatzen du: “Primeramente, que las candelas que fezieren que las fa/gan de buen sebo e syn mecha alguna [...] que les pongan tres filos e non mas, e que sean/ delgados e filados, e las belas candelas mayores/ de vn maravedi, que les echen quatro filos e non torçidos [...] que antes que fagan las candelas los cuesan en agua/ commo madexas” eta amaitzeko lehortzen utzi behar zuten (Castrillo, 2020: 295). Plentziako hiribiduan gertatzen zen moduan, kandelagileek udalaren lizentziapean jarduteaz gain, arau zorrotzen menpean finkaturik zituzten kandelaen pisua, kolorea, kalitatea eta prezioa (Castrillo, 2020: 295). Honekin loturik, argizariak, hileta-eskaintzetarako kandelak ekoiztera oinarritzen ziren. Janire Castrillok adierazi bezala, XV.mendearen bigarren erdian hileta elizkizunetako luminariaren erabilera murriztea erabaki zuten (Castrillo, 2020: 296-297), hortaz, “hordenaron que se fagan los doze/ candelones tres libras e

non mas de las tres libras e/ dende avaxo, e los dos çirios grandes e la rusca/ en los cuerpos presentes” (Enríquez *et al.*, 1996a: 103).

#### 4.4. Asistentzia medikua eta espirituala

Segidan, asistentzia mediku zein espiritualean jardun zuten emakumeen lanbideak azalduko dira. Medikuntza lanei dagokionez, 1400-1500 urteen bitartean aipu zuzen oso gutxi agertzen dira eta gehien bat 1500. urtetik aurrerako erreferentziak dira. Beraz, atal honeko zati txiki honek dokumentazioko aipamenik ez du izango.

Erdi Aroaren amaieran emakume medikuen presentzia mugatua bazen ere, unibertsitateen sorrerarekin bisibilitate gehiago galdu zuen, tituludun medikuek beraien gaitasunak eta lanbide egoera gailenduz (Castrillo, 2020: 299). Sendagintza arloko lanbiderik aipagarriena emaginen izan zen, “partera” bezala ezagutuak. Emagintsan aritzen zirenen eginbeharra emakumeei erditzen laguntzea zen, hauen etxeetara joanez (Ayuso, 2009: 133), eta soldata herriko udalak ematen zien. Nabarmenezkoa da emaginek jakituria eta ezagutza praktikoa denboran ofizioan jarduteagatik ikasten zutela (Castrillo eta Castrillo, 2020: 48).

Autore berdinekin jarraituz (2020: 48-49), garaiko ospitalerak egungo erizainen baliokideak ziren; oro har, erizaindegietan pazienteak zaintzen zituzten, garbituz eta elikatuz. Haei ere herriko kontzejuak ordaintzen zien, eta soldatak banakoen dohaintzekin osatzen zuten. Bestalde, Behe Erdi Aroan garrantzia asko zuen lanbidea inudeena izan zen, alde batetik, goi-klaseeko emakumeak ofizio horretan jardutea gaizki ikusia zegoelako, eta bestetik, garai horretan edoskitze artifizialak ez zirenez existitzen, esnealdia ahalbidetzen zuten profesionalak behar ziren, bai umerzurtzentzat bai esne gutxi zuten amentzat.

Onespen handiko lanbideak erlijioari lotutakoak ziren; izan ere, jainkotiar eta karitatezko bizimodua emakume onaren irudiarekin estuki lotuta baitzegoen. Hasteko, ezinbestekoa da aipatzea komentuak botere feudalenak zirela eta espazio horretara moja sartzea soilik familia oparoenetako kideak egin ahal zutela. Mojen eginbeharrak hauek ziren: alde batetik, komentuetako kaperan apaizek kultuak (mezak, hiletak, hilobiatzeak) fundamentuz egiten zutela kontrolatzea; eta bestetik, eremu espiritualetan batutako balio

handiko ondasunak (lurrak salerosi, instalazio produktiboak alokatu, errentak jaso) kudeatzea (Castrillo eta Castrillo, 2020: 49).

Beaten ogibidearekin jarraituz, Euskal Herri osoan eskuragarriagoa zen lanbidea izan zen. Herritarrei laguntza espiritualala ematen zien eta horren truke dohaintzak ematen zioten. Beata askok, ordea, beraien soldata josketagatik lortzen zuten irabaziekin osatu behar izaten zuten (Castrillo eta Castrillo, 2020: 49).

Serorak tenpluak garbitzeko ardura zuten langileak ziren, gainera kandela zein lanparak erabiliz eremua argiztatu behar zuten. Orobat, objektu sakratuen kargua izateaz gain, elizetako ostilamentuan andre berriak sartzen zirenean gordailuan utziko zitzaizkien ondasunen inbentarioa egiten zuten. Janire Castrillok adierazi bezala, 1490.urtean, Urduñako Santa Maria Antiguako elizan alargun bat serora gisa sartu zen eta San Joan Bataiatzaile maiordomoak “delanteras”, “tajueltas” eta maindireen zaintza atxikitu zion (Castrillo, 2020: 311-312).

Asistentzia espiritualarekin lotura zuzena duten beste bi lanbide “difuntera” eta “tajera”-ena da. Janire Castrillok definitu duen moduan (2020: 313), emakumeen ekintza-eremua zen eta heriotzarekiko eta hildakoenganako gurtzarekiko borondate sendoa zuten; hau da, dokumentazioan aurkitu daitekeen moduan, “fasian muchas cosas con çirios e can/delas e otras cosas, mas por conplir con el mundo que non/ con Dios e con la boluntad de los defuntos” (Enríquez *et al.*, 1996a: 169). “Difuntera” gisa jardun zuten emakumeen kasuan, familiek hiletak eta urteurrenak antolatzeke, eskaintzak egiteko eta ohoreek irauten zuten bitartean kanpaina eskaintzeko kontratazen zituzten (Castrillo, 2020: 313). “Tajera” hauen lana meza ospatzen zen bakoitzean aulkiak (“tajo”-ak) elizara eramatea zen (Castrillo eta Castrillo, 2020: 50); izan ere, emakume batzuk hilobi propiorik ez zuten esertzeko, beraz, “Tajera”-k mezatara eramaten zituzten luxuzko aulkiekin nolabaiteko boterea erakutsi ahal zuten, izan ere, aulki horiek elizan geratu ezin izanak poderioa adierazten zuen (Castrillo, 2020: 313-314). Bilboko dokumentazioan ikusi dezakegu, 1496.urtean hiribildu horretako kontzejuko kideek “tajera” langileen gaineko erabakia hartu zuten: “que non andobiesen/ tajeras algunas en la yglesia, ni las duepnas non lle/vasen tajos algunos, saluo cada vna ellas mesmas/ e non por otras presonas, e las tales mugeres luego los/ troxiesen a sus casas”, hau da, emakume bakoitzak aulkia etxetik eraman behar zuen, horrela “tajera” lanbidea kendu

nahi zuten; honen aurka egiten bazuten edo oraindik ogibidearekin jarraitzen bazuten zigortuak izango ziren: “ordenaron e mandaron que de oy dia en adelante/ ninguna de las tajerías non vsen de ningund seruiçio de tajería/ nin de traer nin goardar tajos a ninguna nin a ningunas de/funteras nin a otras mugeres algunas, so pena/ quel conçejo lo sacara e mandara sacar” (Enríquez *et al.*, 1996a: 121-122).

#### 4.5. Denetariko neskak

Gizarte-klase baxuetako emakume asko etxeko zerbitzuan jarduten zuten, soldata onak eta kontratuen iraupena luzea izaten zen. Kontratu askorek klausulak izaten zituzte, hots, emakume asko behartuak zeuden zerbitzu hori ematera. Gainera, haien lan-jarduerak herrigunetik urrun zeuden lekuetara joatea zenez, askotan, sexu-eraso asko pairatzen zituzten (Castrillo, 2020: 304).

Neskameak denetariko lanak egiteko erabiltzen zituzten. Gehienbat ezkongabeak izaten ziren baina ezkonduak ere burutzen zituzten lan hauek. Familia oso pobreen kasua ez ezik, etxe askotan etxeko lanetan laguntzen zuen neskaren bat egoten zen. Esan bezala, lan asko egiten zuten: etxeko edozein jarduera egin, familiaren jarduera ekonomikoetan eta ugazabei lagundu eta abar. Familia oso behartsuetan, etxeko neska gazteak beste etxe batzuetan neskame gisa hasten ziren lanean (Ayuso, 2009: 132), kasu hau Ispasterreko Maria Ruiz de Yseguí neskan ikusten dugu: “ e que seyendo moça en/ cabello bybyo e moro en la dicha villa de Lequetyo,/ asoldada, por espaço de quatro annos, poco mas o me/nos” (Enríquez *et al.*, 1993a: 183). Horrelako kasuetan bakarrik sabaia eta mantenua jasotzen zuten. Batzuetan lotura sendoa ezartzen zen etxeko jabeen eta zerbitzarien artean eta urte asko igarotzen bazuten soldata akumulatzen joaten ziren, eta neskameek kontratua amaitzerakoan dote gisa erabiliko zuten (Ayuso, 2009: 132).

Labezainekin lotutako adibideak ere badaude: 1496ko apirilaren 13an, justiziagileek esan zuten hiribilduko biztanleek beren emazte, *moza* eta neskameak hiribilduko labeetan ogia egin eta oratzera bidaltzeko ohitura zutela: “ tenian por vso e costunbre de enbiar/ sus mugeres, moças e criadas a masar e faser/ el pan en los ornos de la dicha villa” (Enríquez *et al.*, 1996a: 115). Honi lotuta, 1500eko martxoaren 10ean, hiribildu berdineko ordenantzaren

arabera, herritarrek ez zuten garia azokatik beren etxeetaraino eraman behar, baizik eta “su trigo en las/ cabeças de sus moças o criadas” eraman behar zuten (Enríquez *et al.*, 1996a: 147).

Juana de Lili neskamearen kasua adibide bikaina da. Emakume hau Pedro de Irusta eta bere emazte Marinaren neskamea zen, soldata baten truk lan egiten zuena. 1450eko maiatzaren 6an Juanak auzitara eraman zituen ugazabak, izan ere, Juana de Liliren esanetan, nahiz eta ongi zein leialki zerbitzatu, kolpe asko ematen zioten eta gorputzean zauri asko zituen; gainera, bere borondatearen aurka etxetik bota zuten. Gauzak horrela, soldata osoa ematen eskatu zien: “E/ que en sirviendo y usando ella el dicho servicio bien y lealmente, que dándole muchos açotes e feridas en su cuerpo,/ no meresciendo cosa alguna porque ella deuiese padecer,/ que le sacara de su casa contra su voluntad; e pedio/ toda la dicha soldada con las costas derechas. (...) Otros,/ dijo que demandaba y demandó a los sobredichos Pedro/ de Yruxta e donna Marina, su muger, que cuando la sacaron/ de su casa y poder y contra toda su voluntad que le tomaran e retuvieron en su, contra toda su voluntad/ e contra todo derecho” (Enríquez *et al.*, 1995: 90).

Jornalariei dagokienez, sasoiko lanak egiten zituzten, adibidez nekazaritzakoak eta eraikuntza-arlokoak (Castrillo eta Castrillo, 2020: 51). 1463ko ordenantza batean eraikuntza arloko adibide argia agertzen da; Bilboko hiribilduko bizilagunei obra publikoetan parte hartzeko betebeharra ezarri zien: “que bajen de cada casa vn ome/ o moço o moça que sea de edad de catorce anos arriba, las moças con bazines o cestas e los omes con açadas o picotas por la forma que les fuere mandado, e esto asy lo cumplan fasta tanto las dichas obras sean acabadas” (Enríquez *et al.*, 1995: 219).

*Mozen* presentzia ere badago Behe Erdi Aroan, hauen lana etxeko bizitzaren martxa egokia bermatzea izanik. Neskameen lanarekin alderatuz, espazializatu gabeko lana zen, alabaina garrantzia handikoa familientzat. Neskameen kasuan bezala, *mozak* adin nagusitasunera heltzerakoan edo ezkontzerako momentuan amaiatzen zuten mirabetza, eta une horretan jasotzen zuten ordainsaria (Del Val, 1999: 1586-1589).

Garaiko *moza* hauek burutzen zuten funtsezko ogibidea etxeko lana zen, sektore horretan sekulako laguntza ematen zielako emakumeei. Askotan, lanbide honetan jarduten

zuten, neskameen lan berdina eginik; hots, etxe bateko egunerokotasunarekin zerikusia zuten lanak, alegia (Del Val, 1999: 1588). Errekaduak egiteaz ere arduratzen ziren, adibidez, familia mantenurako elikagaiak erosteaz; honen harira, ikusi dezakegu Bilboko ordenantza batean arraina eroatera joateko mugak jarri zituztela: “que ningunas nin algunas personas, mocos ni mocas, non sean ozados de yr por pescado fresco desde la mitad de la puente de Ascao” (Enríquez *et al.*, 1996a: 59). Bestalde, elikagai-prestaketan ere aritzen ziren: “tenian por vso e costunbre de enbiar/ sus mugeres, moças e criadas a masar e faser/ el pan en los ornos de la dicha villa” (Enríquez *et al.*, 1996a: 115; Del Val, 1999: 1588) eta ondore, labetik txingarrak hartzen zituzten etxean sutara botzatzeko (Del Val, 1999: 1588). Halaber, mezulariak ziren eta egun zein gauez ibiltzen ziren banaketan; haatik, gauez gaizkileek ez erasotzeko, udalak jarrera desagokiak (“tales los davan de palos/ e espaldarasos e los bofeteavan”) zituztenak erbesteratzeko kondena jarri zuen, eta ondorioz gauetan kalera ateratzen zen edozein behartuta zegoen “de las nueve horas de la noche arriva non se ande por/ las calles syn candela” (Enríquez *et al.*, 1996a: 64; Del Val, 1999: 1598).

Bilboko hiribilduan iturrira joaten ziren ur bila, horren adibidea dokumentazioan dago, Bilbon 1425.urtean “en La Gabarra muerto, en donde tomaban el agua las moças” (Enríquez *et al.*, 2001: 132). Era berean, Durangoko dokumentazioan *moza* hauei erreferentzia egiten dien beste lan bat dago: “le dymos a la moça para llebar e traer (interlineado: de Vylbao) las medidas dos targes” (Hidalgo de Cisneros *et al.*, 1989: 169).

#### 4.6. Bestelako lanak


Emakumeen bestelako lanbideen artean hain ohikoak ez ziren ogibideen aipamenak agertu dira dokumentazioan. Bateleren kasuak aipagarriak dira; Plentziako txalupa-ontziak alokatzen zuen “batelera” bat zegoen, eta haren bidez hiribilduaren itsasadarra zeharkatzeko zerbitzua eskeintzen zuen (Castrillo, 2020: 317; Enríquez, 1988: 202).



## 5. EMAKUME LANGILEAK XV. MENDEAN: BILBO, LEKEITIO, URDUÑA ETA DURANGO

Jarraian ikusten diren grafikoak eranskinen atalean aurkitu daitezkeen datu basean oinarrituz egin dira. Datu base horretan ez dira Behe Erdi Aroko lanbide guztiak agertzen, baizik eta emakumeen kasu konkretuetatik abiatuz eginikoa da. Emakume langileen aipu orokorrak (hau da, indibidualki aipatzen ez direnak) erabat baztertu dira.

1.Grafikoa: XV.mendeko emakumeen lanbideak, kopuruak eta portzentaiak.



Lehen grafikoan ikusi daitezkeen moduan, Bizkaiko udal artxiboetako erroldetatik eta bestelako liburu zein artikuluz guztietatik, denetara 110 emakume langile aurkitu dira Bizkaiko 4 hiribilduetan, 19 lanbide ezberdinetan eta 4 hiribildutan (Bilbo, Lekeitio, Urduña eta Durango) banatuta daudenak. Aurrerago ikusiko den bezala eta esandakoarekin loturik, ikusi daitezkeen moduan iturri sorta guzti horretatik emakume langileen erreferentzia oso gutxi aurkitu dira eta hau arazo bat suertatu da. Emakume hauek bakarrik Bizkaiko 4 hiribildutan aurkitzeak ez du esan nahi beste hiribilduetan ez zeudenik. Izatez, Eusko Ikaskuntzak argitaratu dituen udal artxibo bizkaitarren ale guztiak arakatu ostean, informazioa erroldak gorde izan dituzten artxiboetan aurkitzeko gai izan gara soilik. Hots, Bizkaiko hiribildu ezberdinetan miatu ostean, bakarrik Bilbon, Urduñan, Lekeitio eta Durangon aurkitu izan dugu informazioa.

Datu basea aztertuz, 110 emakume langileetatik ikusi daiteke izen propioekin 103 agertzen direla, hots, %93,6. Kopuru honetatik 80 (%72,7) izen abizenekin agertzen dira eta gainontzeko 23ak soilik izenarekin (%20,9). Izen gabe agertzen direnak 110etik 7 dira, kasu honetan “mujer de”, “desposada”, “manceba de” eta “hija de” bezala agertzen dira; era berean, aipagarria da Toda emakumearen kasua, izan ere, dokumentazioan honen izen agertzen da baina alboan “mujer de Martin” dela azpimarraturik dago. Izenik gabe agertzen direnen kasuak gizonezkoen menpekotasunarekin erabat loturik daude.

1. Taula: Lanbideak, kopurua eta lekua.

Lanbidea	Kopurua	Lekua
Argizarigilea	1	Bilbo
Arropa garbitzailea	5	Bilbo
Artekaria	1	Bilbo
Beata	2	Bilbo
Ehulea	6	Bilbo
Errekardari	10	Bilbo
Errentari	2	Bilbo
Errotari	1	Durango
Frutera	6	Bilbo
Gaztainondoaren zaindari	1	Bilbo
Jostuna	12	Bilbo
Labezain	4	Bilbo
Lentzeria-saltzaile	4	Bilbo
Moja	31	Lekeitio, Bilbo eta Urduña
Neskamea	12	Bilbo
Okintza	5	Bilbo
Piora	2	Lekeitio eta Urduña
Sardinera	4	Bilbo

Sopriora	1	Bilbo
<b>Guztira</b>	<b>110</b>	


Lehen taula honetan lanbide bakoitza zein hiribildutan aipatzen den ikusi daiteke. Begi bistan dago gehienbat Bilboko hiribilduan jarduten zutela, hala ere, Lekeitioko, Urduñako eta Durangoko hiribilduen adibideak ere agertzen dira. Lanbideak guztira 110 dira, horietatik 77 Bilbon, 20 Urduñan, 12 Lekeition eta 1 Durangon burututakoak. Informazio gehiena Bilbon edukitzeak (zehazki %70a) pentsarazten du mota honetako erroldak batez ere inguru horretan kontserbatu eta mantendu direla. Aho betez baieztatu daiteke hiribilduetako lanbideak ez daudela batere orekatuta. Datu hauekin, beraz, kontuz ibili behar da.

Jarraian ikusten den moduan, 3. taulan eta 2.grafikotik 7.grafikora, lanbideak multzoka banatu eta bakoitzeko kopuruak adierazi dira.

2.Taula: Lanbideak multzoka


<b>Lanbideak multzoka</b>	<b>Kopurua</b>
Ogiaren lanbideak	10
Saltzaile, merkatari eta dendariak	25
Artisauak	19
Asistentzia espirituala	36
Denetarik neskak	12
Bestelako lanak	8
<b>Guztira</b>	<b>110</b>

**2.Grafikoa:** Ogiaren lanbideak, kopuruak eta portzentaia.



Ogiarekin loturiko lanbideetan jarduten zutenak gehienbat emakumenzkoak ziren. Okinen kasuan emakumezkoek zein gizonezkoek jarduten zuten, baina emakumeak lanbide honetan gailentzen ziren. Errotarien kasuan emakume baten aipua aurkitu da, izan ere XV.mendean lan hau ohikoagoa zen gizonezkoek egitea. Labezainen kasuan, ordea, bai ikusten da eremu femeninoa zela, nahiz eta emakume askoren aipuak ez aurkitu, dokumentazioan gizonezkoen aipu bat ere ez da agertu.


**3.Grafikoa:** Saltzaile, merkataria eta dendarien lanbideak, kopuruak eta portzentaia.



Nahiko ohikoa zen emakumeak saltzaileak izatea. Oro har, oinarrizko edo bizirauteko beharrezkoak diren produktuak saltzen zituzten. Grafikoan argi ikusi daiteke errekkardariak besteen aurrean nagusitzen direla, hauen aipu dezente aurkitu dira, eta, emakumezkoek ez ezik gizonezkoek ere lanbide hau burutzen zuten. Begi bistan geratzen da errekkardarien lanak garrantzi handia zuela, hauek saltzen baitzituzten premiazkoak ziren produktuak, eta, gainera,


beste saltzaileen gain zeuden. Esandakoa sardineren kasua izango litzateke, agian, horregatik ez dira sardineren erreferentzia asko agertzen. Bizkaiko hiribilduetako dokumentazio guztiak aztertu ondoren, argi ikusi da sardinera eta frutera lanbideak soilik emakumeen burutzen zutela. Fruteraren kasuan argi dago fruituak saltzen zituztela. Lanbide espezializatuagoak lantzeria-saltzaile eta artekariak ziren; lehenengoaren kasuan, nahiz eta normalean emakumeek burutu, gizonezkoek ere egiten zuten. Bigarreni dagokionez, emakume zein gizonen lana zen, alabaina, bakoitzak produktu desberdinak ekoizten zituen.

4.Grafikoa: Artisauen lanbideak, kopuruak eta portzentaiak.



Grafikoan ikusten diren hiru lanbideak ehuneko ehunean emakumeen esku zeuden, hots, oso lan feminizatuak ziren. Ehuleei dagokionez, etxean lan egiten zuten ezin dezakegu aipu asko aurkitu, izan ere askotan emakume hauek ez dira lanbidearen izenarekin erreferentziatuak agertzen. Jostun gisa lan egiteko aurretik ikasten zutenak emakumeak izaten ziren, horren erakusle dokumentazioan gizonezko jostun batik ez agertzea litzateke. Argizarigileen erreferentzia bakarra aurkitzea ez da kasualitatea, pentsa daiteke, XV.mendearen zehar ez zela oso lan garrantzitsua, erreferentzia gehiago XVI.mendearen aurkitzen dira.


**5.Grafikoa:** Asistentzia espiritualeko lanbideak, kopuruak eta portzentaiak.



Argi eta garbi ikusi dezakegu lanbide multzo guztietetik emakume gehiengoaren lanbideak asistentzia espiritualekoak direla. Zilegia litzateke baieztatzea emakumeak erlijioarekin loturiko lanbideetan aritzea ondo ikusia zegoela. Era berean, begi bistan dago lau lanbide hauek bakar-bakarrik emakumeek burutzen zituztela; hortaz, ez da harritzekoa emakume kopuru gehiena eta oro har XIV.mendean aurkitu den emakume bakarren erreferentzia asistentzia espiritualekoa izatea. Agerian dago mojen lanbidea beste hiru lanbideen aurrean gailentzen dela, ehuneko hiru laurden baino gehiagoko portzentaiarekin. Priora eta sopriora lanbidera emakume oparoak sartzen ziren, horregatik aurkitu dira aipu gutxiago. Beaten kasuan ere ez daude erreferentzia asko, ekonomikoki moja izatea aukera hobeagoa zen.

**6.Grafikoa:** Denetarikoko nesken lanbideak, kopuruak eta portzentaiak.

**DENETARIKO NESKAK**



*Mozak* eta neskameek osatzen dute denetariko nesken lanbideak. Neskameen ogibidea nahiko lan ohikoa izan da, normalean nesken lanbidea izaten zen, haiek zirelako bere familiari laguntza ekonomikoa emateko beste familia batzuetan integratzen zirenak; mutilak beste familia batera integratzearen aipamen bat ere ez da aurkitu, hala ere, honek ez du esan nahi gizonezkoek ez zutela lan hori burutzen. *Mozen* lana espezializatu gabekoa izanik, ez dira emakumeen aipu konkretuak agertzen, aitzitik, orokorrean hauen aipamenak bai agertzen dira. Neskameek ez bezala, argitaratutako iturrietan argi ikusi dezakegu neska zein mutilen lanbidea zela. Halaber, dokumentazioan, askotan, neskameen eta hauen artean ez da diferentziarik agertzen, ogibide biak nahasirik eta elkarloturik baitaude.

7.Grafikoa: Bestelako lanbideak, kopuruak eta portzentaiak.



Argi izan behar dugu emakumeen ez zutela soilik gorago ikusitako lanbideetan jarduten. Lan solteak edo, beste modu batera esanda, multzo baten sartzen ez diren lanbideak ere burutzen zituzten. Horren adibide errentariena dugu; lanbide hau nahiz eta normalean gizonezkoek egin emakumezkoek ere jardun zuten, eta nolabaiteko prestigioa ematen zien lana zen. Beraz, gizonezkoen zein emakumezkoen lana zen. Arropa garbitzaileei dagokienez, lan erreproduktiboa izanik, soilik emakumeek burutzen zuten, edo hori agertzen da behintzat dokumentazioan. Azkenik, gaztainondoaren zaindariaren aipu bakarra aurkitu da, pentsa daiteke agian ez zela garaiko lanbide ohikoa izango. Hala ere, azken kasu honi dagokionez, ogibide berezia izanik, ezinezkoa da jakitea gizonak lanbide honetan jardun zuten edo ez.

## 6. ONDORIOAK

Hasierako helburua Behe Erdi Aroak barnebiltzen dituen mendeetako emakume langileen inguruan aztertzea zen, alabaina, XIV.mendeko emakume hauen informazioa nahiko pobrea izanik eta dokumentazioan erreferentzia gutxi dagoenez, lana murriztea beharrezkoa izan da. XIV.mendeko aipu bakarra *Colección Documental de los Monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)* dokumentazioan aurkitu da, 1395.urtean Maria Ochoa de Esuneta Lekeitioko mojarrena, alegia (Enríquez *et al.*, 1993b, 8).

Historiografia tradizionalak sortutako diskurtso androzentrikoak sekulako arazoa ekarri zuen, horregatik horren aurrean beharrezkoa izan zen emakumeak subjektu sozial gisa bisibilizatzea eta objektuaren paper hori erabat baztertzea. Argi dago Erdi Aroan emakumeak gizonezkoen esanetara makurtzeaz gain, denbora askoan erabat ikusezinak izan zirela, hala ere, aipagarria da poliki-poliki emakume hauen anonimotasuna desagertzen joan dela. Erdi Aroko emakumeen historian espezializatutako profesionalek denboraren poderioz argitalpen zientifikoak eta elkarteak sortu dituzte, horren ondorioz garaiko emakumeen informazioa aberastuz joan da. Hasieran aipaturiko lan hauei esker emakumeak prozesu historikoetan parte hartu zutela erakutsi zuten. Emakumeen historia idaztea ezinezkoa izango zen dokumentaziorik eta bestelako lehen mailako iturririk gabe (arkeologia eta ikonografia kasu). Gainera, aipagarria da emakumeen historiaren ikerketa oso berandu hasi zela, alde batetik historia gizonezkoek, aberatsek eta irabazleek idatzi duetenez zaila izan delako, eta, bestetik, orain arte beste gai batzuk interes gehiago piztu dutelako.

Denborarekin Erdi Aroko Emakumeen Historia geldialdi prozesu batean sartu dela adierazi du Segurak (2013: 51-52), alegia, aztertzen diren gaiak berdinak direla baieztatuz; beraz, iada ezagutzen diren datuak berriz argitaratzen dira, eta gehienez ezagutzen ez den daturen bat gehiago agertzen da. Hala ere, aipatu beharra dago azken urteetan bide berriak ireki direla.

Zalantzarik gabe, eta gaur egun bezala, lan erreproduktiboa eta lan produktiboa sexu bakoitzari oso lotua dago. Dena den, datu basearekin argi ikusi daiteke emakumeek gizonezkoen lan berdinak ere egiten zituztela, horren adibide aipagarritzat artekarien,



errekardarien eta errotarien lanak izanik. Beraz, pentsatu denaren kontrara, emakumeak etxeko lanak egiteaz gain, eremu publikoan ere lan egiten zuten. Orohar, Euskal Herriko emakumeen lanbideak Iberiar Penintsulako lanbideekin konparatzen badugu, lanbide orokorrenak berdinak zirela ikusi daiteke, baina, aztertu dugun garaian, gure eremuan lanbide aniztasun gehiago zegoela baieztatu daiteke.

Dokumentazioan aurkitutako emakume langileen kronologiari dagokionez, ikusi dezakegu 110etik 52 (%44,27) XV.mendeko lehen erdialdean kokatzen direla, eta gainontzeko 58ak (%52,72) bigarren erdialdean. Tokia erreparatuz, kasu bietan begi bistan geratzen da gehienak Bilboko hiriburuan jarduten zutela; lehen erdialdean 52tik 41 (%78,84) emakume Bilbon eta 11 (%21,15) emakume Lekeition aurkitzen ditugu, eta bigarren erdialdean, 58tik 36 (%62,07) Bilbon, 20 (%34,48) Urduñan, eta bana Durangon (%1,72) eta Lekeition (%1,72).

Lanbideen multzoak aztertuz, grafikoetan ageri diren lanbide gehienak emakumeek burutu zituzten. Gizonek eta emakumeek konpartitzen zuten lanbideetan emakumeen aipamen kopurua askoz urriagoa da, adibidez, artekari, errotari eta errentarien kasuan. Esan dezakegu lan horiek gizonei gehiago atxikitzen zitzaiela, alabaina, horrek ez du esan nahi orokorrean lanbide hauetan gizonak gailentzen zirenik; baizik eta bakarrik Bizkaiko lau hiribildu hauetan. Zalantzarik gabe asistentzia espiritualeko lanbideak besteen gain diferentzia handiarekin nagusitzen dira, “emakume on” bezala ikusiak izaten zirelako. Jarraian saltzaile, merkatari eta dendarien multzoa nabarmentzen da; ezinbestekoak ziren produktuen saltzaileak izanik, kontzejuren eskutik oso kontrolatuak egoten ziren orduan normala da hauen aipamenak aurkitzea dokumentazioan. Hauen berri gehienak hiribilduetan sortutako eztaibaidei esker dauzkagu. Artiasuen multzoan ere portzentaia aipagarria daukagu; nahiz eta etxe-eremuko lanbidea izan eta askotan ordaindu gabekoa, artisauen multzoko lanek ez dute ogibide izateari utzi eta ez dira emakumeen eginbeharrak izan. Esan bezala, ikusiriko artisauen grafikoan bakarrik emakumeen aipamenak aurkitu dira. Ogiaren lanbideari dagokionez, okin eta errotari bezala emakumeak eta gizonak aritzen ziren, baina lehenaren kasuan emakumeak gailentzen ziren, aldiz, bigarrenaren kasuan gizonak. Bigarren kasu honen zergatia, agian, lan produktibotzat ulertua izanik, gizonezkoen esku uzten zuten. Jarraituz, Behe Erdi Aroan ohikoa zen maila ekonomiko onean bizi ziren etxeetara neskameak sartzea. Normalean etxeko zerbitzuetan aritzen ziren, beraz, lan erreproduktibo

hori soilik neskek egiten zituzten eta horren ondorioz ez da gizonezkoen aipurik aurkitu. *Mozen* kasuan, ordea, bi sexuetakoa aipamen orokorrak aurkitu dira; izan ere, normalean neskameak baino gazteagoak izaten zirenez, kasu batzuetan ez ziren soilik etxeko eremura mugatzen, eta garrantzizko enkargu txikiak egiten ibiltzen ziren.

Beraz, labur esateko, diferentzia handiarekin asistentzia espiritualeko lanbideak gailentzen dira (%32,7), ondoren saltzaile, merkatari eta dendarien barruan kokaturiko ogibideak (%22,8), jarraian artisauak (%17,3), eta, denetariko nesken, ogiaren lanbidearen eta bestelako lanen kopurua nahiko antzekoak dira (%10,9 , %9,1 eta %7,2).

Ondorioei amaiera bat emateko, interesgarria izango litzateke etorkizunean Bizkaiko eremuetan gizonezkoen lanbideak aztertzea, horrela sektore maskulino eta femeninoak sakonago zeintzuk ziren ikertzea errazagoa izango zelako. Era berean, Bizkaiko probintzian ez ezik, beste probintzietan datu basea eta garaiko emakume langileei buruzko ikerketa lan berdina egitea oso baligarria izango litzateke, horrela, emakumeak lanbideetan eta oro har gizartean nola txertatzen ziren ikusi dezakegulako, bai eta anonimotasunetik ateratzea. GRAL honekin espero dut Behe Erdi Aroko Bizkaiko hiribilduetako emakume langileei buruzko ekarpen txikia egin izana; izan ere, nahiz eta emakume noble zein erreginei buruzko ikerketak egitea oso garrantzitsua izan, emakume xumeei buruzko historiak eta ikerketek ere garrantzi sekulako inportantzia dute.

## 7. ERANSKINAK

3.Taula: Datu basea

Urtea	Izena	Lanbidea	Tokia	Bibliografia
1402	Sancha de Loaga	Labezain <sup>7</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 155.
1402	Maria Perez	Labezain	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 173.

<sup>7</sup> Eusko ikaskuntzak argitaratutako iturrietan Erdi Aroko lanbideen izenak ez dira datu basean adierazi diren bezala azaltzen. Beraz, jarraian ikusiko diren oin-oharretan garaian idazten zuten moduan aurkeztuko dira. Labezainen kasuan: *Hornera - ornera - fornera - forrnera*.

1402	Maria Sanchez de Acurio	Moja <sup>8</sup>	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 73.
1421	Maria Perez de Majabea	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 78.
1427	Johana Lopez	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Maria Ynnegues de Lastur	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Toda Yuanes de la Placa	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Marina Lope de la Placa	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Marina Lopez de Mugartegi	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Gracia Perez de Aguirre	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Maria Ruiz de la Ferreira	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Maria Martinez de Careca	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1427	Elvira de Urteaga	Moja	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 83.
1431	Maria Ibañez	Errentaria <sup>9</sup>	Bilbo	Castrillo, 2020, 319.
1448	Maria Ibañez de Ustaro	Gaztainondoaren zaindaria <sup>10</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1995, 54.
1450	Juana de Lili	Neskamea <sup>11</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1995, 90.

<sup>8</sup> Dokumentazioan: *Monja*.

<sup>9</sup> Dokumentazioan: *Rentera*.

<sup>10</sup> Dokumentazioan: *posesion vn castannal*.

<sup>11</sup> Dokumentazioan: *Criada*.

1451	Toda	Okintza <sup>12</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1995, 51.
1453	Maria Ortiz de Gueldo	Errentaria	Bilbo	Castrillo, 2020, 319.
1464	Marina	Arropa garbitzailea <sup>13</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 66.
1464	Elvira	Arropa garbitzailea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 87.
1464	Elvira Saez	Artekaria <sup>14</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 69.
1464	Sancha de Gorgollo	Beata <sup>15</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 77.
1464	Maringo de Zornoza	Ehulea <sup>16</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 110.
1464	Marina de Arrigorriaga	Ehulea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 75.
1464	Maria saes de Ugarrio	Errekardari <sup>17</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 60.
1464	Maria Ochoa	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 108.
1464	Maria Saes de Laredo	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 110.
1464	Sancha de _x_	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 74.
1464	Maria Perez	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 75.
1464	Marina	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 92.

<sup>12</sup> Dokumentazioan: *Panadera*.

<sup>13</sup> Dokumentazioan: *Labandera-lavandera*.

<sup>14</sup> Dokumentazioan: *Corredora*.

<sup>15</sup> Dokumentazioan: *Betata*.

<sup>16</sup> Dokumentazioan: *Texedora - tejedora*.

<sup>17</sup> Dokumentazioan: *Regatera*.

1464	Teresa	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 103.
1464	Mujer de Martin	Frutera <sup>18</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 75.
1464	Elvira de Gueldo	Frutera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 85.
1464	Toda	Frutera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 56.
1464	Maria Gil	Frutera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 96.
1464	Maria Saes de Torres	Frutera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 99.
1464	Maria Saes de Apiola	Jostuna <sup>19</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 40.
1464	Maria Perez de Caurus	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 71.
1464	Maria Diaz	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 37.
1464	Sancha	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 79.
1464	Mayora de Bermeo	Labezain	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 73.
1464	Teresa	Labezain	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 105.
1464	Desposada de Esanarryca	Lentzeria-saltza ile <sup>20</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 42.
1464	Mujer de Juan de Cumelcu	Lentzeria-saltza ile	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 44.

<sup>18</sup> Dokumentazioan: *Frrutera*.

<sup>19</sup> Dokumentazioan: *Costurera - Cosdurera*.

<sup>20</sup> Dokumentazioan: *Lencera*.

1464	Sancha de Arbolacha	Moja	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 75.
1464	Maria Garcia	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 67.
1464	Elvira	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 72.
1464	Mari Enecox	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 102.
1464	Maria Saes	Okintza	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 47.
1464	Maria Perez de Mendieta	Okintza	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 60.
1464	Toda (mujer de Martin Lasaga)	Sardinera <sup>21</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 67.
1464	Hija de Ballesteros	Sardinera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 69.
1470	Mancia	Arropa garbitzailea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 171.
1470	Juana	Arropa garbitzailea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 177.
1470	Maria	Arropa garbitzailea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 209.
1470	Maria Ibañez de Jauregi	Beata	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 166.
1470	Maria Saes de Arseniega	Ehulea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 189.
1470	Baracaldoco	Ehulea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 189.
1470	Juanaco	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 137.

<sup>21</sup> Dokumentazioan: *Sardinera*.

1470	Perixco	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 149.
1470	Maria Ibañez	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 158.
1470	Maria Sant Juan de _x_	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 158.
1470	de ... , manceba de Ambrosyo Breton	Lentzeria-saltza ile	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 149.
1470	Marina	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 207.
1470	Maria Iñiguiz	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 150.
1470	Teresa Ruiz	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 173.
1470	Mariaxe	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 193.
1470	Juana de Ayala	Sardinera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 206.
1473-1475	Maria de Helorduy	Ehulea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 264.
1473-1475	Toda de la Pedriza	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 285.
1473-1475	Teresa de Careaga	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 297.
1473-1475	Baracaldoco	Frutera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 294.
1473-1475	Maria Asteax	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 223.
1473-1475	Maria de Mondragon	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 235.

1473-1475	Maria Perez	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 235.
1473-1475	Teresa de Arandia	Jostuna	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 236.
1473-1475	Juanaco	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 294.
1473-1475	Tareche	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 287.
1473-1475	Sancha	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 294.
1473-1475	Mujer de Martin de Mungia	Neskamea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 239.
1473-1475	Toda	Sardinera	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 269.
1484	Maria Fernandez de Samapira	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Saenz de Salinillas	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Gonzalez de Bilbao	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Catalina Lopez de Ajoria	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Lopez de Amurio	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Catalina Lopez de Obaldia	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Ochoa de Rubina	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Mari Saenz de Sojo	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.



1484	Elvira Garcia de Errada	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Lopez de Sojo	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Sancha Fernandez de Murga	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Ana de Montoya	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Lucia Martinez de Arbieto	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Teresa Saenz de Azebedo	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Catalina Saez de Bilbao	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Sancha Iñiguez de Bilbao	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Elvira Diaz de Ayala	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Rodriguez Pesquer	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Juana Ortiz	Moja	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Maria Fernandez Guerra	Priora <sup>22</sup>	Urduña	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 116.
1484	Constanza Lopez de Ayala	Sopriora <sup>23</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1994, 166.
1492	Mariaxe Amezola	Ehulea	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 337-338.

<sup>22</sup> Dokumentazioan: *Priora*.

<sup>23</sup> Dokumentazioan: *Sopriora*.

1492	Elvira de Arana	Errekardari	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 376.
1492	Maria Garcia	Okintza	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 334.
1492	Maria Perez Uriarte	Okintza	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996b, 371.
1492	Teresa de Egoen	Priora	Lekeitio	Enríquez <i>et al.</i> , 1993b, 127.
1498	Maria Saez Bilelako	Lentzeria-saltza ile	Bilbo	Castrillo eta Castrillo, 2020, 45.
1498	Mari Martinez	Argizarigilea <sup>24</sup>	Bilbo	Enríquez <i>et al.</i> , 1996a, 135.
XV.mende amaiera	Maria Perez de Vitayo	Errotaria <sup>25</sup>	Durango	Castillo, 2020, 280.

<sup>24</sup> Dokumentazioan: *Candelera*.

<sup>25</sup> Dokumentazioan: *Molienda - Molino*.

## 8. ITURRIAK

### 8.1. Lehen mailako argitaratutako iturriak

Enríquez, J. (1988): *Colección documental de la villa de Plencia (1299-1516)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1993a): *Colección Documental del Archivo Municipal de la Villa de Lequeitio. Pleito sobre el monte Otoy*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1993b): *Colección Documental de los Monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1994): *Colección Documental del Archivo Municipal de Orduña (1271-1510), Tomo I*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1995): *Libro de Autos Judiciales de la alcaldía (1419-1499) y libro de acuerdos y decretos municipales (1463) de la villa de Bilbao*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1996a): *Ordenanzas municipales de Bilbao (1477-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C.; Lorente, A. eta Martínez, A. (1996b): *Repartimientos y Foguera-Vecindario de Bilbao (1464-1492)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Enríquez, J.; Hidalgo de Cisneros, C. eta Martínez, A. (2001): *Colección Documental del Archivo Histórico de Bilbao (1514-1520)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Hidalgo de Cisneros, C., Largacha Rubio, E., Lorente Gomez, A. eta Martínez Lahidalga, A. (1989): *Colección Documental del Archivo Municipal de Durango, Tomo II*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

## 8.2. Bibliografia

- Ayuso, C. (2009). El mundo laboral femenino en el País Vasco Medieval. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, bol 30, 115-136.orr.
- Castrillo, J. (2014). Las mujeres del común y la sociedad política en el País Vasco bajomedieval. In Solorzano Telechea, J.A., Arízaga Bolumburu, B., Haemers, J. (Ed.) *Los grupos populares en la ciudad medieval europea (499-522.orr)*. IER.
- Castrillo, J. (2020). *Las mujeres vascas durante la Baja Edad Media*. Madril: Sílex.
- Castrillo, J., & Castrillo, A. (2020). Euskal emakumeen ogibideak Behe Erdi Aroan. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, bol 114, 33-57.orr.
- Castrillo, J. (2021). Mujeres, negocio y mercadería a finales de la Edad Media: algunos apuntes sobre el País Vasco. *Edad Media. Revista de Historia*, bol 22, 285-315.orr.
- Del Val, M. I. (1999). Mujer y trabajo en Castilla al final de la Edad Media. *Aragón en la Edad Media*, bol 14, 1585-1596.orr.
- Del Val, M.I. (2008). Los espacios del trabajo femenino en la Castilla del siglo XV. *Studia historica. Historia medieval*, bol 26, 63-90.orr.
- Del Val, M.I. (2021). Los estudios sobre las mujeres medievales hoy. In López Ojeda, E. (Ed.). *La mujer en la Edad Media, XXX semana de estudios medievales*. (19-52.orr). IER.

- Fuster, F. (2009). La historia de las mujeres en la historiografía española: propuestas metodológicas desde la historia medieval. *Edad Media: Revista de Historia*, bol 10, 247-273.orr.
- López, M. T. (2010). El trabajo de las mujeres en el mundo urbano medieval. *Mélanges de la Casa de Velázquez*, bol (40), 39-57.orr.
- Opitz, C. (1992). Vida cotidiana de las mujeres en la Baja Edad Media (1250-1500). In Duby, G., Perrot, M (ed.), *Historia de las mujeres, la Edad Media* (321-400.orr). Taurus.
- Rodríguez, A. (2014). El trabajo de las cristianas en los territorios «cismarinos» de la corona de Aragón en la baja edad media: una revisión historiográfica. In García Herrero, M.C., Pérez Galán, C. (Ed.), *Mujeres de la Edad Media: actividades políticas, socioeconómicas y culturales* (167-197.orr). Colección Estudios Historia.
- Segura, C. (2013). Las mujeres medievales. Perspectivas Historiográficas. In Del Val Valdivieso, M.I., Jiménez Alcázar, J.F. (Ed.) *Las mujeres en la Edad Media* (33-54.orr). Murcia-Lorca.
- Solé, G. (1993). La mujer en la Edad Media: Una aproximación Historiográfica. *Anuario Filosófico*, bol 26, 653-670.orr.

### **8.3. Hitzaldia**

- Castrillo, J. (2023). Ser mujer en la Edad Media. *Castillo de Muñatones: Conferencia*.